

P-I-A-N-D-E
-A-I-W-E

ETA EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOA



**Euskal
Eskola
Publikoa,
gaur, bihar**

ehige



Euskal Herriko
Ikasleen Gurasoen
Konfederazioa

heize



Euskal Eskola Publikoaren
Zuzendaritza Elkartearen Federazioa

2020ko Apirila

1

PANDEMIA ETA EGOERA SOZIALA

1

EGUNGO ESPERIENTZIAREN HEZKUNTZA- PROIEKZIOA

3

URRUTIKO IKASKUNTZARAKO ESPERIENTZIEN DIAGNOSTIKOA

7

ANDEMIAREN OSTEKO ERRONKAK ESKOLA PUBLIKOARENTZAT

11

ESKOLA PUBLIKOAREN INKLUSIO DIGITALERAKO PLANA

12

EUSKAL HEZKUNTZA-POLITIKA KRISI-TESTUINGURUAN

1. PANDEMIA ETA EGOERA SOZIALA

Gaur egungo pandemia-egoera inpaktu sozial eta emozional handia eragiten ari da. Elkartasuna, lankidetzak, enpatia eta beldurra, ziurgabetasuna eta segurtasunik eza bezalako balioak azaleratzen ari dira herritarren artean, eta gure bizitzako alderdi asko ulertzeko moduan aldaketak eragin ditzakeen gertakari historiko baten aurrean gaudela adierazten digute.

Fenomeno sozial horien adituek adierazten digute litekeena dela bizi dugun egoerak aldaketak eragitea gizartearen lehentasunak zehazterakoan. Aldaketa horiek bizikidetzak eta gizarte-kohesioa hobetzeko onuragarriak izango direla ziurtatzea izango litzateke egoerarik onena. Zentzu horretan, aldaketen norabidea, hein handi batean, herritarrok maila kolektiboan hartzen ditugun jarreraren arabera izango da.

Larrialdi-egoera gainditu ondoren, eta normaltasunera itzultzen garenean, litekeena da, lehen aipatutako zentzuan kontzientzia sozialik sortzen ez bada, egoera horrek ekonomian izango duen eragin negatiboak gure okerrera ateratzera bultzatzea, eta portaera sozialek jarrera totalitarioak sustatzea, askatasunak murriztea, indibidualismo eta norberekoikeria pertsonala inposatzea eta "guztion onerako" idealetik aldentzea.

Adituek dioten bezala, pandemiaren aurretik zeuden desberdintasunak areagotzeko arriskua dago, horrek guztiok errealitate gordinaren aurrean jarriko gaitu, eta aurrerantzean zer gizarte mota izan nahi dugun berriro pentsatzera behartuko gaitu. Dagoeneko ez du balio pentsatzea orain gertatzen ari dena fenomeno puntual aparta dela; aitzitik, komunitate zientifikoak ohartarazi duen bezala, gizarteak pandemia-egoerekin etengabe bizitzeko prestatu behar du bere burua.

2. EGUNGO ESPERIENTZIAREN HEZKUNTZA-PROIEKZIOA

Konfinamendu-egoera eta urrutiko ikaskuntza

Aurreko eztabaidak errepikatuko diren eta pandemiak salbuespen-egoerara eraman gaituen eremuetako bat hezkuntza-sektorea da. Ikastetxeak ixteak eta irakasleak, ikasleak eta familiak konfinatzeak ustekabeko egoera bati aurre egitera behartzen du hezkuntza-komunitatea. Hezkuntza-prozesua geldiaraztea saihesteko, urrutiko ikaskuntza da egoera honen irtenbidea. Gure hezkuntza-sisteman, esperientzia interesgarriak daude, ikastetxe askotan egiten ari zirenak, eta aurrerapenak izaten ari ziren ikaskuntza presentziala eta ez-presentziala dibertsifikatzen joateko, ikasleen arreta pertsonalizatua eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin.

Hala ere, **ikastetxe, irakasle eta ikasle gehienak, ikaskuntza-prozesu osoa modalitate ez-presentzialean egin beharrak, ezustean harrapatu ditu, plangintzarik gabe eta, askotan, eraginkortasunez kudeatzeko behar besteko prestakuntzarik gabe.** Eredugarria izaten ari da hezkuntza-komunitatea erronka horri ematen ari den erantzuna, eta irakasleen jakintza guztia eta ikastetxeen baliabide guztiak erabiltzen ari dira egoera zail horri aurre egiteko.

Orain, prozesu horri ahalik eta arreta handiena eskaini behar zaio, eta irakasleei baliabide material digitalak eta erabilerari buruzko aholkularitza emateko zerbitzuek modu erabakigarrian babestu behar dute, elkarlanean egoera horrek gure ikasleen ikaskuntza-prozesuan duen eragina murriztu dezagun, horixe baita gure helburu bakarra. Gure irakasleen eta zuzendaritza-taldearen profesionaltasunean eta gure ikasleen egokitzeko gaitasunean konfian-

tza izateko garaia da, eta ez da saiatu behar prozesuan eragiten prozesuari buruzko zalantzak sortzen, ezta prozesua kanpotik kudeatzen ere.

Hezkuntza Saileko instantzien argibideak eta jarraibideek argiak eta erantzunkideak izan behar dute irakasleak eta familiak jasaten ari diren egoerarekin. Lan burokratikoak ahalik eta gehien murrizteko garaia da, ikastetxeei denbora asko kentzen baitiete, hezkuntza-lanaren eta une honetan egiten ari den ahalegin erantsiaren mesedetan. Curriculumak betetzeari buruzko jarraibideak, hirugarren ebaluazioaren irizpideak eta azken ebaluazioa, sustapen-irizpideak, USBE prestatzea eta abar argi eta garbi zehaztu behar dira, nahasmena sortzen duten espekulaziorako eta interpretazio desberdinetarako tarterik utz ez dezaten.

Hezkuntza Saila, elkarteak, sindikatuak, ikertzaille-taldeak eta adituak gai horietan guztietan egoerak duen eragina baloratzen ari dira. Aurre-rago ikusiko dugunez, azterketa horiek azkar ari zaizkigu laguntzen garatzen ari den prozesuaren indarguneak eta ahulguneak identifikatzen.

Esperientziatik ikasteko aukera

EEPGBren ustez, irakasleek programatutako ikaskuntza-prozesuarekin jarraitzeko izan dituzten zailtasunez gain, egoera hau aukera ona da guztiok (hezkuntza-agintariak, irakasleak, ikasleak, familiak, herritarrak, etab.) hezkuntza digitalari buruz ikasten jarraitu ahal izateko.

Gaur egungo testuingururako planifikatuta ez genituen hezkuntza-esperientziek behartu egiten gaituzte estrategia berriak esperimentatzera eta baliabide didaktiko berriak erabiltzera, tresna eta aplikazio digitalen erabilera didaktikoan hasten edo aurrera egiten lagunduko

digutenak. **Garrantzitsuena, nolanahi ere, jarraitutako prozesuari eta garatutako jardueri buruzko gogoeta egitea izango da, ondorio interesgarriak ateratzeko, irakasle gisa eta ikastetxe bakoitzean lagungarriak izan daitezten, eta, pixkanaka, baldintza normaletan garatzen ditugun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetarako hobekuntzak eta berrikuntzak sartzeko joateko.**

EEPGBk uste du salbuespen-egoera gainditu ondoren abian jar daitezkeen dinamikek aldaketa-sinergiak sor ditzaketela, hezkuntza-sistemak aldeztatik planteatuta zituen egiturazko erronkak hobetzeko.

Garatzen ari den prozesutik ikasteko, funtsezkoa izango da urrutiko ikaskuntzaren esperientzia ezaugarritu duten alderdien ebaluazio zehatza egitea: komunikatiboak, teknologikoak, pedagogikoak, emozionalak, etab. Alderdi horien guztien ebaluaziotik uste dugu ondorio interesgarriak atera daitezkeela, hurrengo prestakuntza-planak diseinatzeko, hezkuntza berritzatzeko proiektu digitalak diseinatzeko, baliabide didaktiko digitalen estimazioa egiteko, ekitate eta inklusioa hobeto bermatzeko neurriak hartzeko, etab. Jakina, lantzen ari garen erronka estrukturaletako batzuk dira horiek.

Beraz, egunez egun tele-ikaskuntzako jarduerak eta estrategiak hobetzen jarraitzeaz gain, oso beharrezkotzat jotzen dugu prozesuaren amaierako ebaluazioari arreta jartzea. **Konfinamenduak sortutako hezkuntza-arazoaren balorazioa osatu gabe geratuko litzateke ikaskuntza-lorpenen, baliabideetan antzemandako gabezien eta aldi horretan hautemandako prestakuntza-beharren ebaluazio sakonik egin gabe. Txosten hau laguntza garrantzitsua izango da hezkuntza-arrakala eta arrakala digitalen arriskuak goiz detektatzeko.**

Irakasle bakoitzaren eta ikasle bakoitzaren ebaluazio-txosten horrek oinarri dokumentala izan behar du, eta ikastetxeko batzorde pedagogikoa horretan oinarritu behar da datorren ikasturteko antolaketa-plana egiteko. Bakoitzak bere erantzukizunetik, buru belarri eta denborak ondo kudeatuz lan egiten badu, ziur ondorio interesgarriak aterako ditugula eta datu esanguratsuak lortuko ditugula 2020-2021 ikasturtea behar bezala planifikatzen laguntzeko.

3. URRUTIKO IKASKUNTZARAKO ESPERIEN- TZIEN DIAGNOSTIKOA

Urruneko ikaskuntzaren esperientziari buruz hainbat kolektibok egindako inkestek eta azterketek datu interesgarriak eman dituzte, eta jarraian labur-labur azalduko ditugu.

Tele-ikaskuntza prozesuaren zenbait datu

Azterketa eta ebaluazio instituzional zientifikoa-
gorik eta erabakigarriagorik ez dagoen bitar-
tean, HEIZEK, EHIGEK, sindikatuek eta ikertzai-
leek egindako inkestek datu interesgarri batzuk
ematen dizkigute, eta datu horiek ez dira ahaztu
behar; izan ere, horietatik ideia indartsuak atera
ditzakegu, euskal hezkuntza-sisteman planteatuta
ditugun hezkuntza-erronkak hobetzeko
proposamenak egiten laguntzeko. Ildo horretan,
EEPGBri interesgarriak iruditzen zaizkio honako
gai hauek:

✓ Prozesua inprobisatua izan den arren, irakasleak gai izan dira ikasleekin tele-ikaskuntzako jarduerak garatzeko, gailu eta baliabide digitalak erabiliz.

✓ Irakasle-taldeek koordinazio-lanak egin dituzte bideokonferentzia-sistemen bidez.

✓ Irakasleek aplikazio ezagunen bidez (posta elektronikoa, web-sistemak...) etengabeko komunikazioa izan dute familiarekin, jarraibideak bidaltzeko eta ikasleek egin beharreko ikaskuntza-zereginetan lankidetzara eskatzeko.

✓ Konfinamenduaren ondorio psikologikoak direla eta, ikasleen alderdi psikologikoa zaintzearen garrantzia nabarmendu da. Alde horretatik, irakasleek egindako hezkuntza eta afektibitate-lanak guraso-elkarteen federazioen lana izan du, izan ere familiei jarraibideak eta aholkuak bidali zaizkie, seme-alabei konfinamenduan laguntzeko. Informazio horrek familia-ingurunean lan-giro eta giro emozional ona sortzen lagundu du.

✓ Irakasleek eta aholkulari pedagogikoen askotariko tresnak eta aplikazioak erabili dituzte komunikaziorako: *Telegram, wakelet, moodle, siteak, emaila, whatsapp*, telefonoa, *meet, zoom, hangouts...*, eta komunikazioa hainbat bidetatik bidera daitekeela erakutsi dute.

✓ Amarauna webgune semantikoa erabiltzen hasi da eta baliabide digital berriak prestatzen ari dira. B00ko *Etxean ikasten* edo EHUko ekimenak laguntzen ari dira.

✓ Ikastetxeetako zuzendaritzak etengabeko inplikazioa eta ahalegina erakusten ari dira tele-ikaskuntzako prozesuaren garapen egokia bermatzeko. Hezkuntza Sailak ikastetxeei salbuespen-egoerarako bidali dizkien jarraibideen eta erabakien jarraipena egitea, irakasle-taldeak *online* koordinatzea, ikastetxeko baliabide teknologikoak ahal den neurrian baliabiderik ez duten ikasleen esku jartzea, hezkuntza- eta ikuskaritza-zerbitzuekin lankidetzan aritzea, etab., dira zuzendaritzak kudeatzen ari diren zeregin garrantzitsuetako batzuk.

✓ Hezkuntza Sailak, enpresek eta argitaletxeek eta partikularrek tele-ikaskuntza prozesuaren zerbitzura jarri dituzte edukiei eta aplikazioei buruzko baliabide irekiak, egoera arintzen laguntzeko.

✓ Premia gehiago behar dituzten ikasleak dituzten ikastetxeek zailtasun handiak izan dituzte urrutiko ikaskuntza normaltasunez garatzeko, eta zailtasun hori areagotuz joan da oinarrizko hezkuntzako ikasleen adinaren arabera. Kezka bereziko egoerak dira autonomia pertsonal baxua duten edo etxean laguntzarik ez duten ikasleak.

✓ Berritzeguneak programatutako prestakuntza-ikastaroak eta mintegi didaktikoak mantentzen saiatu diren arren, ustekabeko egoera zailtzen ari da berrikuntza-proiektu batzuen jarraipena, digitalizazio-proiektuak, bidezko eta lankidetzako proiektuak, berdinen arteko ikaskuntza proiektuak eta abar. Hala ere, aholkularitza pedagogikoko zerbitzuek irakasleekin lankidetzan estuan jarraitzen dute, proiektu horiei jarraipena emateko eta irakasleak proiektu horiekin talde-jarduerak egitera animatzeko (plataformak, moodle, classroom eta abar), izan ere, estrategia pedagogiko bikainak dira zailtasunak dituzten ikasleek haria ez galtzeko.

✓ Arazorik handiena prozesu osoa ebaluatzeko prozesua da. Ebaluazio-irizpideen argitasun falta izaten ari da gehien kezkatzen ari den arreta- eta eztabaida-faktoreetako bat. Uste dugu aukera ona dela "ebaluazio prozesuala edo formatiboaren ebaluaketa" eredua aplikatzeko.

Alderdi horiek eta beste batzuek datu interesgarriak eman dituzte erronka horretarako hobeto prestatuta daudela erakusten ari diren ikastetxeen ezaugarriei buruz. Zentro horietan:

- Irakasleen artean koordinazio ona dago, eta horrek aukera ematen du erabakiak bizkor hartzeko eta antzemandako akatsak edo hutsuneak zuzentzeko.
- Irakasleak talde-lanera ohituta daude.
- Ikastetxeak IKT dinamizatzailerik bat du, trebatua.
- Komunikazio-kanal iraunkorrak dituzte (ordutegi baten barruan).
- Familiarekin komunikatzeko sistemak antolatuta dituzte.
- Zuzendaritza-taldeak lidergoa erakusten du, eta etengabeko harremana du hezkuntza-zerbitzuekin eta elkarrekin.

Konfiantza irakasleengan

Aurreko guztia ez litzateke posible izango irakasleek eta familiek ustekabeko egoera honetan erakutsitako inplikazio handia gabe. Ikasle eta familia bakoitzari ematen zaion arreta pertsonalizatua eta materialak tele-ikaskuntzako sistemara egokitu beharra gehiegizko esfortzua eta lan-karga erantsia dira irakasleentzat, eta hori nabarmentzea ere bidezkoa da. Lan profesional hori oso garrantzitsua izaten ari da ikasleen ikaskuntzaren gaineko eragina murrizteko.

Irakasleak ikasleei planteatzen ari zaizkien eskola-estrategiei eta -jardueri buruz egiten ari diren autoebaluazio jarraitua funtsezkoa izaten ari da planifikaziorik ezaren ondorioz egin diren akatsak zuzentzeko. Hori bereziki nabarmendu da ikasleek egunero egin behar dituzten zereginen bolumenean, baina irakasleen eta familien arteko lankidetzaren bidez zuzentzen ari da.

Une oro irakasleen, ikasleen eta familien arteko komunikazio ona izatea eta gure irakasleengan konfiantza izatea funtsezkoak izango dira egoera horri aurre egiten jarraitzeko.

Etxea hezkuntza-gela gisa

Ikasleen konfinamenduak sortzen ari den hausnarketa kolektiboak familiaren etxeak "hezkuntza- eta ikaskuntza-ikasgelatzat" hartzeko aukera handiak eskaintzen dituela ulertzen laguntzen du. Interesgarria da gogoratzea eskolako ohiko lanak egiteaz gain, etxea bestelako prestakuntza-jarduerak egiteko egokia dela kontuan hartzea, nahiz eta berria ez izan, seme-alaben garapen integralari mesede egin diezaiokeelako.

Konfinamendu-denbora aprobetxatzea familia-bizikidetzat sendotzeko eta seme-alabek interes handiko beste hezkuntza eta prestakuntza-jarduera batzuk egin ditzaten, hala nola etxeko lanetan laguntzea, sormena sustatzen duten jarduerak, jolas-jarduerak eta jolas hezigarriak, adinekoekin arreta jartzea eta hitz egitea, ikaskideekin urrutitik etengabeko komunikazioa izatea, etab., hezkuntza-jarduera horiek oso garrantzitsuak dira, besteak beste, ikasgaien edukiekin aurrera egitea bezain garrantzitsuak. Aurretik bagenekien arren, ondo etorri zaigu gogoratzea haurrek uneoro ikasten dutela eta ikastetxeetako gela fisikoak testuinguru bat gehiago direla ikasleak hezi eta ikasteko. Hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren ikuspegi hori beti izan beharko genuke kontuan.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar hezkuntza eta familia ingurune hori ez dela berdina familia guztientzat. Familia askok ez dute espazio egokirik eta ez dute lana eta familia bateragarri egiteko denborarik seme-alabekin jarduera

horiek behar bezala egin ahal izateko, ezta etxeko lanetan laguntzeko ere. Egoera horiek eragin negatiboa eragiten dute eragindako ikasleen ikaskuntzan, eta, beraz, eskolak zeregin garrantzitsuagoa izan behar du kasu horietan.

EEPGBk uste du gero eta familia gehiagori eragiten dion egoera objektibo hori lehentasunezko zatia jo beharko dela hurrengo ikasturteetan. Hezkuntza-arduradunek egoera horri aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak eta neurriak ezarri beharko dituzte, eta ikastetxeek curriculumaren garapena ikasle horien ikaskuntza-eritmoetara egokitu beharko dute eta hezkuntza-errefortzuak planifikatu beharko dituzte.

Curriculuma betetzea

EEPGBk uste du gaur egungo egoeran interesgarria dela memoriarekin jardutea eta ikerketek adierazten digutenera jotzea, programazioak betetzearen gaiari heltzeko orduan.

Tele-ikaskuntza prozesuak dituen mugak gorabehera, ikasle gehienek aurreikusitako curriculum garatu ahal izatea izan behar da helburua. EEPGBren ustez, oso garrantzitsua da baliabideak eta denbora ahalik eta gehien aprobetxatzea aurreikusitako curriculum-programak betetzen saiatzeko, eta lehentasuna ematea baldintza kaskarragoetan dauden ikasleei.

Hala ere, ezin dugu ahaztu ebaluazioek adierazten dutena ikasleen maila sozioekonomikoaren eta gure hezkuntza-sisteman duten eskola-errendimenduaren artean dagoen erlazioari buruz. Beraz, **egoera honek maila sozioekonomiko ertain-altuko ikasleengan duen eragina, eskolara ez joateagatik, ez da kezka handia izan behar. Aitzitik, behar diren baliabideak ez**

dituzten edo giro prekarioetan bizi diren ikasleek atzerapenak izateko arriskua izan dezakete.

EEPGBk oso interesgarritzat jotzen du irakasleek ikasle bakoitzaren amaierako txostenean zehatz-mehatz jasotzea ikasgaiaren zer zati ez dituen ondo barneratu, datorren ikasturteko errefortzuak zehazterakoan kontuan har daitezten. Txosten partikular horietatik, ikastetxeak ikasturte amaierako memoria egin behar du, eta aurten, gertatukoak direla-eta, dokumentu garrantzitsua izango da.

Ikasturte amaierako txostena egiterakoan, eta ikasle guztientzako inklusio-helburua betetzeko, funtsezkoa da irakasleek oso argi izatea zeintzuk diren ikasle guztiek lortu behar dituzten gutxieneko ezagutzak eta gaitasunak. Gutxieneko curriculum horiek ezinbesteko erreferentzia dira gure baliabideen eta metodologiaren eraginkortasuna baloratu ahal izateko. Akatsa litzateke pentsatzea gutxieneko horiek gaur egungo salbuespenezko egoera baterako baino ez daudela justifikatuta.

Duela bi hamarkadatik hona, EEPGBk curriculumeko gutxienekoak zehazteko beharra eskatu die hezkuntza-agintariei, orain arte arrakastarik izan gabe. Espero dugu orain argitaratuko badira, gure hezkuntza-sistemaren gai nuklear eta iraunkorra direla kontuan hartzea.

Pandemia-egoeran dauden ikasleen ebaluazioa

Urrutiko ikaskuntza-prozesua finkatzen ari den heinean, beharrezkoa da ebaluazioari arreta jartzea. Eztabaidatzen ari diren aukerak bi gai garrantzitsu azpimarratzen ari dira:

- Azken ebaluazioaren emaitzak balio behar du ikasleek ikasturtean zehar alde zuzenetik lortu dituen emaitzak hobetzeko eta ez okertzeko.

- Ikastaroa errepikatzea oso ezohiko neurria izan behar da.

EEPGBren ustez, konfinamenduak ikasleentzat oro har eta ikasle behartsuenentzat bereziki eragiten dituen baldintzapenak zailtasun gehigarri bat dira, eta oso kontuan hartu behar dira irtenbide bat edo bestea planteatzerakoan. Hainbat arrazoiengatik, ikasle guztiak urrutiko ikaskuntza egokia eta aprobetxamendua garrantzen ari direlako bermerik ez dagoenez, komenigarria da ebaluazio-prozesuak salbuespenezkoak izatea ikasturte honen amaierara arte. Uste dugu egoera horretan azken helburua ikasle guztien alde egitea izan behar dela, eta ez desberdintasunak areagotzea. Hala ere, interesgarria da ebaluazioa egiteko irizpideak etaparen arabera arautzea.

Ebaluazioaren amaierako txostena. Amaierako ebaluazio-txostena egiterakoan, gomendagarria da, arau-gidalerroek dioten bezala, ebaluazioaren izaera globala eta jarraitua kontuan hartzea. Ziur gaude ebaluazio-batzordeek, malgutasunez, taldean jardunez eta ekitate eta inklusio-irizpideei jarraituz, ikasle bakoitzaren mesederako txostena egingo dutela.

Mailaz igotzea. Gai honek berria ez den eztabaida batera garamatza, errepikapenera. Txosten, mintegi eta kongresu askotan aztertu da neurri horren hezkuntza-egokitasuna. Guztiak bat datoz esatean errepikapenak askotan ez diela ikasle guztien ikaskuntza-prozesuari laguntzen, ez eta hezkuntza-sistemari berari ere.

Aditu gehienak eta hezkuntza-sistema arrakastatsu asko bat datoz neurri hori ohiz kanpoko izaerarekin erabili behar dela esatean, betiere ikasle bakoitzaren eboluzio- eta psikologia-prozesua kontuan hartuta. Beraz, **gaur egungo egoera ezohikoan, are beharrezkoagoa**

da errepikapenak izan dezakeen izaera zigortzailea.

EEPGBren ustez, adituek gomendatzen duten bezala, argi dago derrigorrezko hezkuntzan mailaz igotzeko edo ez igotzeko erabakia taldean hartu behar dela, errendimenduan eragina izan dezaketen alderdien balorazioak jasota dagoen etapari buruzko txostena oinarritzat hartuta: heldutasun psikologikoaren maila, gaitasunak, hautemandako ikasteko zailtasunak, familia-ingurunea eta lan-ohiturak, jasotako laguntza-neurriak eta horien eraginkortasuna, eta abar. Gure ustez, garrantzitsua da argi izatea ikasleak beharrezko baliabide didaktikoak eta laguntza psikologikoa izan dituela ikasteko aukera bermatu ahal izateko.

4. PANDEMIAREN OSTEKO ERRONKAK ESKOLA PUBLIKOARENTZAT

Geletara itzultze segurua

Osasun eta hezkuntza agintariek pertsonen osasuna bermatu behar dute eskola presentzialera itzultzea erabakitzen denean.

Jarduera akademikoaren garapena pertsonen osasunerako arriskurik gabe ziurtatuko duten prebentzio-neurri eta jarduketa-protokolo guztiek argiak izan behar dute.

Pertsonen autobabeserako osasun-baliabide teknikoek eta materialek (beharrezkoak badira) homologatuta egon behar dute, eta doan eman behar zaizkie ikastetxeei, hezkuntza-komunitateko pertsonen osasunerako edozein arrisku saihesteko.

Hezkuntza Sailak jarduteko jarraibide argiak eman beharko ditu, bai eta funtzionamendu

segurua bermatzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza ere.

Ilido horretatik, urtero Osasunari eta Segurtasunari buruzko Zentroen Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Ebazpenean jasotzen den araudia egokitu egin beharko da, egungo egoerarako behar diren kautelak ezar daitezten.

Hezkuntza-inklusioko neurriak

Gehiengoaren adostasuna dago ikasleen arteko desberdintasunak larriagotzeko benetako arriskuari buruz. Hezkuntza-arrakala eta arrakala digitala gizarte-arrakala den arazo beraren bi aurpegiak dira. Egoeraren larritasunak gaur egun kaltebera gisa identifikatuta zegoena baino ikasle gehiagori eragingo die ziurrenik; izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioek orain arte egoera hori pairatzen ez zuten familiei eragingo diete. **Beharrezkoa da hurrengo ikasturterako eskola-ordutegiko eta eskolaz kanpoko ordutegiko hezkuntza-baliabideak gaur egungoen ginetik zabaltzea, batez ere ikasle guztiek gutxieneko ezagutzak eta gaitasunak lortuko dituztela bermatzea helburu dutenak lehenetsiz.**

Horregatik, lehentasunezkoa da hezkuntza-ar duradunek egoera horri aurrea hartzea eta 2020-2021 ikasturterako hezkuntza-errefortzuko eta -inklusioko programetara ezohiko inbertsioak bideratzea pentsatzea, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden eta egoera ahulean dauden ikasleentzat.

Ikastetxeek euren ikasleen egoeraren diagnostikoa egin behar dute, eta datorren ikasturteari begira, ikasle guztien eskola-arrakasta bermatzeko behar dituzten hezkuntza-errefortzuak eta aniztasuna tratatzeko neurriak proposatu behar dituzte.

Udako hezkuntza-jarduerak

Egungo egoerak hainbat alderditan eragiten die haur eta nerabeei: curriculumean, afekti-bo-emozionalean, harremanetan, etab. Egoera berezia denez eta ikasleengan eragina duenez, ikastetxeek eragin hori murrizteko ekimenak sustatu behar dituzte. **Gure esku dugun aukeretak bat da uda baliatzea ikastetxeak irekitzeko, ikasle guztiei hezkuntza-aukerak eskaintzeko, baina bereziki egoera ahulean daudenei edo hezkuntza-atzerapena dutenei.** Antolatzen diren jarduerak alderdi desberdinak izan ditzakete: curriculum-edukia, hezkuntza-aisia, elikadura eta lana eta familia bateratzeko laguntza, etab.

Ikuspegi inklusibotik, EEPGBk udako jarduera horiek euskaraz izatearen garrantzia azpimarratu nahi du, horien helburua edozein dela ere.

EEPGBk administrazio publikoen erantzukizuna eskatzen du, jarduera horiek bermatzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak ezar ditzaten.

2020-2021 kurtsoa antolatzeko prozesua

Hezkuntzak une honetan duen egoeraren ezau-garri bereziek, ikastetxeetara itzultzeari buruz dagoen ziurgabetasunak, ebaluazioak egiteko zailtasunek, ikaskuntzaren jarraipena ziurtatzeko egunez egun arreta ematen jarraitu behar dugun larrialdiek eta abarrek pentsarazten dute atzerapenak izan ditzaketela datorren urterako plangintza-prozesuak, lanpostu-zerrendak, berrikuntza-proiektuen deialdiak, aniztasunaren tratamenduak eta abar egiterakoan. Egoera horren aurrean, ezinbestekoa da presaka ez jardutea eta inplikaturako alde guztien artean formularik onena aurkitzea, datorren ikasturtea behar bezala antolatzen dela ziurtatzeko.

Plangintza-prozesu honek normalean duen konplexutasunak eta egungo egoerak ezartzen dituen baldintzapenek gomendatzen dute Hezkuntza Sailak prozesu hori guztia garatzeko egutegi bat egitea. Horretarako, **garrantzitsua da egutegi hori lehenbailehen aurkeztea ikastetxeei, familiei eta sindikatuei, eta zuzendaritzek eta sindikatuek egin nahi dituzten hobe-kuntza-proposamenak biltzeko eta azalpenak emateko kontsulta-denbora irekitzea. Garrantzitsua da arduraz jokatzea, plangintza adostasunez egin dadin.**

Ikastetxeetako zuzendaritzekiko kontsulta-prozesu hori asko erraztuko litzateke Hezkuntza Sailak egungo egoerarako bideokonferentzia-sistema bat ezartzea.

Irakasleen aholkularitza eta prestakuntza online

Tele-ikaskuntzako esperientziak erakusten du irakasleen gehiengoak *online* komunikazio-prozesuak ezagutzen dituela. Esperientzia horrek aukera berriak irekitzen ditu berritzeguneen eta irakasleen arteko *online* komunikazioa indartzeko.

EEPGBk uste du bi eremu garrantzitsutan aprobetxatu behar direla *online* plataformen abantailak:

- Irakasleen formakuntza.
- Irakasleen aholkularitza pedagogikoa.

Bi alderdi garrantzitsu horiek hobetu egingo lirateke *online* komunikazioaren ahalmen guztiekin: ordutegi-malgutasuna, prestakuntza eta aholkularitza pertsonalizatzea, eta aholkularitza-zerbitzuen eta irakasleen arteko harreman-erraztasuna eta maiztasuna.

Ikastetxe publikoen autonomia

Pandemiak egoerak ekartzen dizkigun giza eta hezkuntza-alderdi interesgarrietatik harago, EEPGBk uste du garrantzitsua dela, halaber, orain arte aipatutako alderdietatik harago irakurketa bat egitea, eta ikastetxeek eta familiek erakutsitako gaitasunari buruz hausnartzea, prozesu zail honetan hezkuntza-eragile nagusiak izan daitezen. Horrek garrantzi handiagoa hartzen du, historikoki, eskola publikoak ez duenean izan hezkuntza-komunitateari hezkuntza-prozesuak gobernatzeko behar besteko autonomia emateko adinako konfiantza instituzionalik.

Hori dela eta, Euskal Eskola Publikoak historikoki inolako arrakastarik gabe ikastetxe publikoen autonomia gauzatzeko arau-esparru bat izateko beharra eskatu duela gogorarazi behar da. **Ezin da justifikatu eskola-komunitatea instituzionalki goraiatzeari salbuespen-egoeran hezkuntza-prozesuaren zama nagusia jasateko erakutsitako gaitasunagatik eta erantzukizunagatik, eta eskola-normaltasuneko egoera batean, sistematikoki ez fidatzea haren esku-menaz.**

Bizikidetzarako hezkuntza

Gure eredu pedagogikoaren hezkuntza-helburuen artean dago ikasleek ikaskuntza sozioemozionaleko ingurune orekatua izatea lortzea. Horregatik, interesgarria da adituen iritzia kontuan hartzea berrogeialdian bizitzeak haurrengan arrasto psikologikoa utzi izan ahal duela adierazten dutenean. Berrogeialdiaren ostea ere ez da batere erraza izango; beraz, interesgarria litzateke ikasleek berrogeialdian izandako sentimenduei zentzua aurkitzea, sentimendu horiek enkistatuta gera ez daitezen. Denbora horretan, haurrek estres-egoerak jasan ahal izan

dituzte, gaixorik dauden senideengandik edo familia-egoera tragikoetatik gertu egon ahal izan dira. Hezkuntza Sailak kontuan hartu beharko luke egoera hori, zerbitzu pedagogikoen bidez ikastetxeei aholku eman ahal izateko datorren ikasturtearen hasieran alderdi hori lantzeko moduari buruz.

Era berean, uste dugu oso interesgarria izango litzatekeela guztiok hezkuntza-komunitatearekiko atxikimendua lantzeko, **ikasleek, irakasleek eta familiek konfinamenduan bizi izan ditugun esperientziak partekatzeko formulak aurkitzea**. Ikasleei, batez ere, sentimenduak agertzeko edo beren familia- eta auzo-bizipenak, hezkuntzakoak, sanitarioak, tragikoak (bizi izan badi-tuzte) kontatzeko aukera ematea baliabide ona da ikastetxeetako hezkuntza-ekintza humanizatze eta gizarte-ikaskuntza sustatzeko. Ildo horretan, eskoletan antolatzen ditugun jarduerak atek irekiko dizkigute hainbat balio lantzeko, hala nola enpatia, elkartasuna, zentzu kritikoa eta komunitate-kidetzaren sustatzea, eta ikastetxea bere gizarte-ingurunearekin konektatzea.

Curriculumaren ikuspegi berria

EEPGBn urteak daramatzagu adierazten, hezkuntza publikoak curriculum-ikuskeraren berria behar duela. Gaur egungo curriculum-egitura zurruna, edukiz betetako konpartimentu estankotik eraikia, biltegi gisa, ikasteko oztopo bat da eskola-testuinguru askorentzat. Arazo errealean arteko erlazioak eta konplexutasunak eta horien diziplina anitzeko izaerak gidatu behar gaituzte curriculum-eredu zeharkakoago baten bilaketan, hau da, egungo edukien gainkarga gainditzen duen eta premien arabera jorratu gabeko beste ikaskuntza batzuei lehentasuna ematen dien eredu baten bilaketan.

Adierazitakoarekin bat etorriz, euskal eskola publikoaren *Euskal Herrirako Curriculum* dokumentuan curriculum-eredu sozial bat garatzen da. Eredu horren oinarri ideologikoak errealitatearen ikuspegi soziokulturaletik eta sozio-kritikotik eraikitzen dira, eta bertan, benetako gaitan oinarritutako eta herritarrengandik hurbil dauden hezkuntza-ekintzei esker, ikasleek ezagutza eskuratu eta gizarte-gaitasunak garatu ahal izango dituzte, egungo gizartean erabat integratu ahal izateko. Curriculumaren ikuspegi horrek eskatzen du "testua" eta edukiak "testuinguruarekin" lotuta egotea.

Zalantzarik gabe, orain lehentasun sozialekoak diren gaiak (higienea eta osasuna, erantzukizun zibikoa, ikerketa zientifikoa, klima-aldaketa eta ingurumen-osasuna, genero-berdintasuna eta feminismoa, elikadura industrialak edo hurbilekoak, egiazko eta partaidetzazko informazioa, lankidetzak eta elkartasuna, balio etikoak, ahultasuna eta bazterkeria, herritartasuna eta komunitate-kidetzak, kontsumismoa eta jasangarritasuna, etab.) oso iturri interesgarriak eta ezinbestekoak dira **curriculum-eredu berriak eraikitzeko, hezkuntza integrala ahalbidetuko duena. Ikasleek krisiaren alderdi horiei buruzko kontzientzia kritikoa garatzea da gizarteak gizarte justu baten eraikuntzan aktiboki parte hartzen duen herritar integratuak izateko oinarria.**

Lehen aipatutako erronkek pandemia-egoera aukera gisa irakurtzea esan nahi dute, eskola publikoa eta gure ikasleak krisiaren aurrean kokatzeko, betiere adin eta etapetara behar bezala egokituta. EEPGB ziur dago erronka horiei arreta jartzea askoz garrantzitsuagoa izango dela ikasleen ikaskuntza-prozesuan, gainditze orokorra bai ala ez eztabaidatzeari gehiegizko denbora eskaintzea baino.

Eskola publikoa eta gizarte-ekintzaitza

Baina sustatu eta lehenetsi beharreko hezkuntza-helburu bihurtzeko lehentasunezko alderdiaren bat kontuan hartu behar badugu, herritarrak pandemiak sortu dituen beharrei aurre egiteko erakusten ari diren jarrera ekintzailea, gizabidezkoa eta elkarlanerako boluntarismokoa da. Orain lanean jarraitu behar dugu sortu den dinamika sozial itxaropentsua indar kolektibo bihurtzeari, are gehiago areagotzeko arriskuan dauden desberdintasun sozialei aurre egiteko.

Gure ikasleak hezi behar ditugu ziurgabetasuna hartzen ikas dezan, ez beldur izan behar duen zerbait bezala, baizik eta sormena, jarrera ekintzailea eta lankidetzaren kultura garatzeko elementu motibatzaile gisa. Hori izango da bizi dugun egoeratik ikas dezakeguna.

Gizarte eta hezkuntza-zeregin horretan, eskola publikoak eginkizun garrantzitsua du, une horretan ikusten ari garen gizalegezko eta elkartasun kolektiboko jardunbide egoki horiek gure eskoletan hezkuntza-jardunbide eta inklusio- eta elkarlan-jardunbide egoki bihurtzeko.

Eskola publikoak bere izaera ekintzailea erakutsi behar du, eta autogobernarako duen gaitasunean sinetsi, gizarte-kohesiorako eragile nagusietako bat bezala ahalduzko.

Hezkuntza baliabide irekien liburutegia

Eskola publikoak aspalditik eskatzen du **euskarazko baliabide digital irekiak sortzeko plan instituzional** bat garatzea. Gure ustez, euskara sareetan kokatzeko funtsezkoa da gure hizkuntzan eduki digitalak sortzea sustatzea.

Hezkuntzaren arloan ematen ari diren aurrerapau-

soak positiboak dira, baina oraindik ez dira nahikoak eta ekoizpen-erritmoa motela da, eta horrek ikasketa digitaleko prozesuak geldiarazten ditu. EEPGBren ustez, hori da datozen urteetako gai estrategikoetako bat, eta, beraz, beharrezkoa izango da Hezkuntza eta Kultura Sailaren eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren elkarlana. Ildo horretan, euskararen inklusio digitala eta etorkizuna bermatzeko proiektu garrantzitsu honetan laguntzeko prest gaudela adierazi nahi dugu.

5. ESKOLA PUBLIKOAREN INKLUSIO DIGITALE-RAKO PLANA

Ekitatearen eta inklusioaren zerbitzura dauden hezkuntza-berrikuntzako programak diseinatzea da Europako helburuetako bat. Mugikortasuna eta migrazio-mugimenduak areagotzeak agerian utzi du gobernariaren betebeharrak morala, hots, modu koordinatuan lan egitea gertatzen ari diren desberdintasun sozialak eta hezkuntza-arrakalak gainditzeko. Alde horretatik, hezkuntza digitala ikasleen artean desberdintasuna sor dezakeen eremua izan daiteke, lehen aipatutako ikuspegiarekin lan egiten ez bada; beraz, lehentasunezko arreta eman behar zaio, hezkuntza- eta genero-arrakala handiagoa sor ez dezan.

2020rako Europako Agenda Digitalak hezkuntzarako funtsezkoak diren hainbat ildo jasotzen ditu:

Konfiantza eta segurtasuna: erabiltzaileen pribatutasunari garrantzia ematen dio. Horregatik, garrantzitsua da hezkuntza-agintariak hezkuntza-prozesuen funtzionamendu segurua bermatuko duten tresnak ematea sistemari, pertsonen informazio pribatua ez dadin erabili hezkuntzakoa ez den beste helburu baterako.

- **Alfabetatze, trebakuntza eta inklusio digitala sustatzea:** Batasuneko herritar guztiek Euro pako eremu komun digitalera baldintza berdinekin iritsi ahal izateko eskubide gisa planteatzen da. Horregatik, Agenda Digitalak presakuntza eta orientazio teknologikoko ikastaroak sustatzen ditu, eta arlo horretako ikaskuntza-planak ezartzen ditu nazioetako hezkuntza-legeetan.
- **IKTak gizarte-erronkei aplikatzea, hala nola klima-aldaketari edo kultura-aniztasunaren sustapenari:** atal honetan, helburuak klima-aldaketaren aurkako borrokara oso bideratuta daude, kontsumoa arrazionalizatuz, birziklatzea eta produktu berrerabilgarriak berrerostea sustatuz. Helburu horiek guztiek lehentasunezko curriculum-edukiak izan behar dute, gaur egun IKTek dituzten ahalmen didaktikoekin lotuta, eta aipatutako gaiei buruzko ezagutza eta sentsibilitatea sortzen lagundu behar dute.

Gure hezkuntza-sistemaren hezkuntza digitalaren garapen-maila urrun dago oraindik lehen aipatutako helburuetatik. Gaur, inoiz baino gehiago, uste dugu gure sistemaren berrikuntza-erritmoa, hezkuntza-alderdi garrantzitsu honetan, Europako garai eta helburuetara egokitu behar dela. Pandemiaren ondorioz gaur egun dugun esperientziak berresten du oraindik asko dagoela egiteko aipatutako helburuetara iristeko.

Irakasleen gaitasun digitala eta ikasleen inklusio digitala premiaz landu beharreko gai estrategikoetako bat da, Europako helburu eta denborekin bat datorren plangintza serio batekin.

Koronabirusaren inguruko ikaskuntza-esperientziak erakutsi digunez, nahiz eta zenbait alderdi hobetu behar diren, lehen esan dugun bezala, irakasleen gehiengoa prest dago baliabide

digitalekin batera hezkuntza-jardunbideak aldatzeko. Beraz, une ezin hobea da tresna horien erabilgarritasunaz baliatzeko, aldaketa metodologikoei heltzeko eta ikasgelako irakasle-rola birplanteatzeko. Prozesu horretan, teknologiaren erabilerak aurretik adierazitako hezkuntza-helburuak lortzearen mende egon behar du, baita lankidetzan, baliabideen erabilera etikoa, ekitatea eta inklusioa bezalako balioak indartzearen mende ere.

Hala ere, beste behin ere agerian geratu da ikasle eta familia guztiek ez dutela nahikoa baliabide gaur egungo egoeran ikasten jarraitzeko. Horregatik, **Euskal Eskola Publikoak Digitalizazio Plan Estrategiko eta Iraunkor bat izan behar duela planteatzen du berriz ere EEPGBk**, inprobisazioetatik urrunduko gaituena eta arlo horretako Europako helburuen mailan jarriko gaituena.

Plan horrek bermatu behar du ikastetxeei eta ikasleei beharrezko baliabideak eta prestakuntza emango zaizkiela guztiak prest daudela bermatzeko aurrez aurreko edo urrutiko ikaskuntza garatzeko, edozein egoera eta testuingurutan. Alfabetatze eta gaitasun digitala denon eskura egon dadin, erakundeen lidergoa behar da irtenbide teknologiko iraunkor eta seguruak eta ikaskuntza demokratizatuko duten baliabide digital iraunkor eta irekiak aurkitzeko.

Bestalde, beharrezkoa da baliabide digitalak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen barruan kokatzea eta ikastetxeak esperimendatzen ari diren metodologia berrien garapenera bideratzea. **Baliabide digitalak eta tele-ikaskuntza klase magistralaren ohiko metodologia erreproduzitzen jarraitzeko erabiltzean datzan eredu zaharkituta dago, ez baitagokio kultura digitalari eta gizarte-dinamikak eskatzen dituen prestakuntza-beharrei.**

Berrogeialdiko egoerak ere lagundu digu egiaztatzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan hezkuntzaren, giza balioen eta teknologiaren arteko aliantza hirukoitza adimenez kudeatzea funtsezkoa dela. Hiru dimentsio horiek harmonikoki konbinatzen jakitea da gaur egun dugun hezkuntza-erronka. Horregatik, beharrezkoa da gogoeta-prestakuntza prozesu bat aktibatzea, teknologiak hezkuntza-kalitatearen berrikuntzan eta hobekuntzan duen eginkizuna hobeto ulertzen laguntzeko, eta aurreko bi kontzeptuak jarrera kooperatiboak, solidarioak, emozionalak eta hezkuntzakoak garatzera bideratzen laguntzeko, inklusio hezitzaile eta digitalaren oinarri gisa.

6. EUSKAL HEZKUNTZA-POLITIKA KRISI-TES- TUINGURUAN

Lehentasunezko helburuak

Baina aurrekoak, hezkuntza-eredua eraikitzeko erronka izateaz gain, hezkuntza-sistema egituratzen duen Euskal Eskola Publikoa defendatzen dugunok modu kontsekuentean eta erantzunkidean lan egitera behartzen gaitu. Horregatik, beharrezkoa da egungo egoera proiektatzen ari zaigun indar-ideia batzuei jarraipena ematea. Aipatzekoak dira garrantzitsuenak:

- Ikasleekin eta familiekin hurbileko eta etengabeko komunikazioa bermatzea oinarritzkoa da ikasleei ingurune sozioemozional egokia bermatzeko, bereziki ikasteko zailtasunak dituztenekin. Beraz, irakaslearen hezkuntza emozionaleko prestakuntzak hobetu beharreko alderdi bat izan behar du.
- Irakasleen eta ikasleen alfabetatzea eta konpetentzia digitala hezkuntza-arloko lehentasuna duen gaia da, eta ikasle eta irakasle

guztiek baliabide teknologiko eta eduki digital irekiak dituztela bermatzea, inklusio hezitzailea eta digitala bermatzeko. Egungo egoerarako behin-behineko irtenbideek ez digute ahaztara-zi behar Euskal Eskola Publikoak hezkuntza digitala garatzeko plan estrategiko iraunkor eta inklusibo bat behar duela.

- Euskal curriculum berrinterpretatzea, ikasle guztiek hezkuntza-etapa bakoitza amaitzean lortu behar dituzten gutxieneko ezagutzak eta gaitasunak argi finkatuz, eta edukiak benetako arazoekin eta lehentasunezko gizarte-erronkekin lotuz.

Ekintza-batasuna krisi-garaian

Hezkuntza oso sektore sentikorra da polarizazio politikoa eta hezkuntza-itunik eza sustatzen duten jarreretik. Bada garaia hezkuntzari egin zaion arduragabekeria historiko hori aldatzeko, hainbat hamarkadatan eragin oso negatiboa izan baitu haren egonkortasunean. Klase politikoa ados jarri behar da pandemiak sortzen dituen hezkuntza-arrakalak konpontzeko moduarekin.

Orain arte klase politikoak gizarte-arazo nagusiak konpontzeko erakutsi duen ezintasunak, hezkuntzakoak besteak beste, hezkuntza-politika publikoen erabakiak hartzeko prozesuetan herritarren parte-hartze handiagoa eskatzera behartzen gaitu. Horrekin demokraziaren esanahiak berak dakarren zerbait eskatzen ari gara (demos = herria).

Lehen aipatutako zentzuan, EEPGBk adierazi du **gure hezkuntza-sistemak bere hezkuntzaren gobernantza-eredua aldatu behar duela**, euskal hezkuntzaren etorkizuneko esparrua eraikitze-ko, gizarte-eztabaidaren prozesu baten emaitza gisa. Ildo horretan, berriz ere adierazi behar

dugu hezkuntzari buruzko erabaki politikoek bat etorri behar dutela gure hezkuntza-arauak definitzen dituzten ekitate- eta inklusio-printzipioekin, eta bat etorri behar dutela ikasleek dituzten benetako beharrekin.

Orain ez bezala, **ikasleen interesa politika-, korporazio- eta gizarte-sektore egokien interesen ginetik jarri behar da**. Irakasleek parte-hartze handiagoa izan behar dute hezkuntza-programen definizioan, eta hezkuntza-ikerketak izan behar du hezkuntza-estrategiak diseinatzeko eta horiek garatzeko behar diren baliabideak ezartzeko gida.

Publikoaren balioa sendotu

Gaur egungo testuinguru historikoan, Euskal Eskola Publikoaren orainaldi hurbila maila orokorrean hartzen diren premiazko ekintza politikoek baldintzatuko dute, pandemiak ekarri digun krisi ekonomiko globalari aurre egiteko. Ildo horretan, egoera horri aurre egiteko koherenteena da eskola publikoaren aldeko apustua egiten duten hezkuntza- eta gizarte-eragileek inoiz baino bateratuago lan egitea, heldu beharreko hezkuntza-erronkei eragiten dieten erabaki politikoei aurre egiteko.

Era berean, Euskal Eskola Publikoak dituen eta datozen urteetan areagotu daitezkeen egiturazko arazoak direla eta, gizarte-kohesioa eta justizia defendatzen dugun indar politiko eta hezkuntzako eta gizarteko eragileok adostasun bat lortu behar dugu egungo gizarte-egoerak behar duen sare publikoaren ereduari buruz, eta eredu horretan oinarrituta, Euskal Eskola Publikoaren etorkizuneko proiektu estrategikoa eraiki. Publikoaren balioa azpimarratzeko unea da, herritarrei gure eskolarekiko konfiantza helarazteko.

Lidergoa eta parte-hartzea

Euskal Eskola Publikoak krisiaren aurkako ekintza-plan zehatz, prebentibo eta ekitatibo bat beharko du, Hezkuntza Saila buru dela eta beste erakunde batzuen laguntzarekin, eta ekitate ezaren eta arrakala sozialen aurka koordinatuta lan egiten duten hezkuntza- eta gizarte-eragileen parte-hartzearekin.

Prozesu horretarako, Euskal Eskola Publikoak antolatuta egon behar du sortu den krisi ekonomiko eta sozialari modu bateratu eta irmoan aurre egiteko, eta horrek, zalantzarik gabe, eragin nabarmena izango du ikastetxeen hezkuntza-proiektuen garapenean. **Elkarteen bidez ikastetxe publikoen arteko lankidetzaren sustatzea ezinbesteko estrategia da isolamenduari aurre egiteko, hezkuntza publikoan konfiantza soziala indartzeko eta eskola-komunitatea lehen aipatutako proiektu estrategikoaren inguruan sentsibilizatzeko.**

Errealitatearen analistek dioten bezala, gizarte solidarioago eta justuago batera eramango gaituen paradigma sozialaren aldaketa baten aurrean bagaude, herritarren ahalduen, publikoaren balioaren eta guztion onaren alde egitea funtsezko alderdiak izango dira norabide-aldaketa horretan.

Aldaketa-testuinguru horretan, datozen hilabeteetan sortzen joango den hezkuntza-errealitatea proben banku on bat izango da, klase politikoak eta gizarte-ehunak bizi dugun egoera historikotik zerbait ikasi dugun baloratzeko.

Inbertsioa eskola publikoan

EEPGBk oso argi du Euskal Eskola Publikoan inbertitzea eta ikasle guztiek aurrez aurreko edo urrutiko ikaskuntza baldintza berdinetan garatu ahal izateko baliabide digitalak izatea berma-

tzea ez dela "gastutzat" hartu behar, "inbertsioztat" baizik.

Lehen adierazitako zentzuan, EEPGBn galdera batzuk planteatzen zaizkigu:

- Gai izango al gara gure hezkuntza-sistemaren egiturazko ahuleziak eta *statu quo* delakoa zalantzan jartzeko, edo behin koronabirusa gaindituta, normaltasunera itzuliko al gara, hezkuntza-eredu ez-segregatzaile batera eramango gaituzten aldaketa-itxaropenak desagertzen utziz?
- Gai izango al gara gure pentsamendu kolektiboaren eredia aldatzeko eta "nitik gura" igarotzeko?
- Ikasi al dugu ikasle guztientzako baliabide digitalek bermatuta egon behar dutela pandemiak dauden gabeziak ikustarazi aurretik?
- Ikasi al dugu elkartasunezko eta lankidetzazko ikaskuntza-eredua sustatzea dela justiziarako hezkuntzaren oinarria, eta ez ikasleen arteko lehiakortasuna areagotzea?

Gutxienez adierazgarria da zenbat eta isolamendu handiagoa izan pertsonen artean, orduan eta handiagoak izan direla elkartasunerako eta erantzukizun kolektiborako deiak. Horregatik, normaltasunera itzultitakoan, ulertezina izango litzateke hezkuntza-sisteman agintariak eta herritarrek ikasle pobreenen eskola-konfinamenduarekiko sentiberatasunik gabe jarraitzea, gure interes partikularrak guztion onaren gainetik jarritz.

Hezkuntza-sistema propioa garatzeko esparrua

EEPGBk beti adierazi du bat datorrela euskal herritarrek erabakitzen duten euskal hezkun-

tza-sistemaren eraikuntza erraztuko duen hezkuntza-deszentralizazioaren prozesuarekin. Estatuan etengabe ematen diren lege-aldaketak eta egun indarrean dagoen LOMCE bezalako lege atzerakoiak, nahiko arrazoi dira Euskal Herriak bere hezkuntza-esparrua kanpoko mugarik gabe eraikitzekeo eskubidea izan dezan.

Estatuko esparruak ezartzen dizkigun muga legegileen artean, EEPGBk honako hauek nabarmendu nahi ditu: irakaskuntza pribatua finantzatzeko eskubidea ematen dutenak, mugarik gabeko ikastetxea askatasunez aukeratzea, erlijioaren curriculumean sartzea, sexuaren araberako bereizketa, etab. Laburbilduz, hezkuntza-sistema merkantilista eta bereizlea ezartzen laguntzen ari diren arau guztiak, gizarte-sektore mesedegarrienen interesen babesle.

EEPGBk adierazten du bere borondatea dela hezkuntza-sistema propioa eraikitzen laguntzea, baina egungo gizartearen errealitate multietnikoari, kulturantzunari eta askotarikoari erantzuteko balioko duena. Gure hezkuntza-sistemak euskararen normalizazioari eta kultura propioaren ezagutzari buruz dituen helburu espezifikoak egungo euskal gizartearen eta gure ikastetxeetako ikasleen ezaugarrietatik eta testuinguru globalak planteatzen dizkigun erronketatik landu behar dira.

Testuinguru erreal horretatik, justiziarako eta gizarte-kohesiorako euskal hezkuntza publikoaren arkitektura eraikitzen laguntzeko prest gaude.

Azken mezua

Erronkak konplexuak eta ilusioz beterikoak izanik, dokumentu honetan adierazi den bezala, frustrazioa litzateke berriro ere egiaztatzea arazoa ez direla birusak, pertsonak baizik.



Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar

2020ko Apirila

EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioa

HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa

ehige 

Euskal Herriko
Ikasleen Gurasoen
Konfederazioa

 **heize**

Euskal Eskola Publikoaren
Zuzendaritza Elkartearen Federazioa